

Orereta-Erreterian, 2023ko ekainaren 27an

Ikastolakide agurgarriak:

Kilometroak 23ren antolaketan murgilduta gabiltza Orereta Ikastolan, urte guztian zehar ekimenak mamitzen eta josten. Urriaren 1eko jai handiaren aurretik, baditugu oraindik hitzordu batzuk eta horietako baten berri ematera gatozkizue.

**Uztailaren 19an, Añabitarte baserriaren erosketaren 50. urteurrena ospatzeko, “Gure Añabitarte” kontzertua eta gaubela** antolatu ditugu Añabitarten bertan; mendialdean, paraje paregabea. Euskal Herria mendebaldetik ekialdera josiz musika, herria eta mendia uztartzen dituen **Urmuga Festibalarekin** elkarlanean, ongi merezitako omenaldia egingo diogu.

Bertan izango dira **Alaitz eta Maider, Alex Sardui, Janus Lester, Olaia Inziarte, Xutik, Aire Ahizpak, Arkaitz Miner eta Et Incarnatus orkestra. Irtazar erromeria arduratuko da gaubelaz, euskal produktuen txosna ere ez da faltako. Sarrerak salgai daude [urmuqa.eus](http://urmuqa.eus)** webgunean (20€, 16 urtetik gora | 5€, 16-5 urte artean | doan, 5 urtetik behera). **Hemen** topatuko dituzue xehetasun guztiak. Eta **hemen**, kokapena (aparkatzeko lekua egongo da, baita, nahiago izanez gero, herriaren erdigunetik Añabitartera **igo eta bertatik bueltan jaisteko doako lotura-autobusak** ere). Kartela erantsita bidaltzen dizuegu.

Badugu zer ospatua, eta badugu zer oroitua: orain mende erdia hazia jarri zuten herrikideak, geroztik hazi hori loratzeko lan egin duen komunitatea, egun horretan dihardutenak eta etorkizunean testigua hartuko dutenak. Den-denei, eskerrak emateko aukera ederra dugu, eta nahia ez dugu falta. **Eta zuek ere, Gipuzkoako Ikastolakideak, gonbidatu nahi zaituztegu hitzordura.** Anima zaitetze eta anima itzazue zuen Ikastoletako komunitatekideak! Ederra izango da!

Besterik gabe, elkar ikusiko dugulakoan, jaso ezazue gure agurrik beroena.

Orereta Ikastolako Artezkaritza Kontseilua  
eta Kilometroak 23ko koordinazio-taldea



## GAINERA...

### GOIZEAN, MENDI IBILALDI MUSIKATUAK

Urdaburu eta Girizia mendi elkarteen laguntzaz, goizean mendi ibilaldiak izango dira Hendaia eta Irun lotzen dituen Santiago Zubitik eta Enderlatsatik Oiartzungo Gurutze auzoraino. Gurutzen, Leturia eta Iñaki Dieguezen kontzertuaz gozatu ahal izango da Beloaga gazteluan. Mendi ibilaldiak doakoak dira, baina izena eman behar da. [Hemen](#) egin dezakezue.

### ARRATSALDEAN, ERRIO GAINEKO KONTZERTUA

Albaola Itsas Kultur Faktoriaren patatxa ontzia San Pedrotik irtengo da erriean gora Albaolako eta Hibaika arraun elkarteko arraunlariek bultzata. Arrabiten Zurdetan taldea musika joz etorriko da erriean gora, 17:00etan Lekuona Fabrikaren parean kontzertua eman aurretik. Doako kontzertua izango da.